## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA BATZORDEA

Honen bidez dei egiten zaizu Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordearen bilkurara. Bilkura **otsailaren 21ean (asteartea) izango da, 12:30ean**, Eusko Legebiltzarreko 1. aretoan. Hauxe izango da

### GAI ZERRENDA

1. 2017ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea.

2. EH Bildu talde parlamentarioak aurkeztutako legez besteko proposamena, Aiaraldean (Nerbioi ibaia barne) premiazko saneamendu plan bat garatzeari buruz. Proposamenari eta aurkeztutako zuzenketei buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena [11\11\02\01\0019].

3. EH Bildu talde parlamentarioak aurkeztutako legez besteko proposamena, Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala onartzeari buruz. Proposamenari eta aurkeztutako zuzenketari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena [11\11\02\01\0020].

4. Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak aurkeztutako legez besteko proposamena, Eusko Trenbide Sarearen hiriguneetako tarteetan babes akustikoak jartzeari buruz. Proposamenari eta aurkeztutako zezenketari buruzko eztabaida eta behin betiko ebazpena [11\11\02\01\0086].

16:00etan

5. Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren agerraldia, M.ª del Carmen López de Ocariz López de Munain Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak egindako eskaerari jarraituz, batzordeak eskatuta, azal dezan nola kontziliatu bere

## COMISIÓN DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Pongo en su conocimiento que la Comisión de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda ha sido convocada para el día **21 de febrero, martes, a las 12:30**, en la sede del Parlamento Vasco (sala 1), con arreglo al siguiente

### ORDEN DEL DÍA

1. Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la sesión celebrada el día 30 de enero de 2017.

2. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa al desarrollo en la comarca de Aiara (incluido el río Nervión) de un plan urgente de saneamiento, y de las enmiendas presentadas [11\11\02\01\0019]

3. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa a la aprobación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostia / San Sebastián, y de la enmienda presentada [11\11\02\01\0020].

4. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la protección acústica de tramos de Eusko Trenbide Sarea en zonas urbanas, y de la enmienda presentada [11\11\02\01\0086].

A las 16:00

5. Comparecencia del director general de la Agencia Vasca del Agua, a petición de la comisión, de conformidad con la solicitud formulada por M.ª del Carmen López de Ocariz López de Munain, parlamentaria del grupo Popular Vasco, a fin de que

lan-jarduera eta Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusirako designatua izatea, eta zer interes-gatazka izan daitezkeen horien artean etikaren, gobernu onaren eta konduktaren ikuspuntutik [11\10\06\03\0017].

6. Eskariak eta galderak.

Eusko Legebiltzarra, 2017ko otsailaren 14a

**Legelaria,**

explique la conciliación y los posibles conflictos de interés entre su actividad laboral y su designación como director general de la Agencia Vasca del Agua desde el punto de vista d ela ética, buen gobierno y conducta [11\10\06\03\0017].

6. Ruegos y preguntas.

Parlamento Vasco, 14 de febrero de 2017

**El letrado,**

**Eneko Pagazaurtundua Arbaizagoitia**

***Aiaraldean (Nerbioi ibaia barne) premiazko saneamendu plan bat garatzeari buruz*** (Izapidetzeko onartzea)
(11/11.02.01.0019)

Mahaiak, 2016ko azaroaren 22ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordeko idazkaritzari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Otero Gabirondo EH Bildu taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Aiaraldean (Nerbioi ibaia barne) premiazko saneamendu plan bat garatzeari buruz.

Zioa

Gezurra badirudi ere, 2016. urtean Nerbioi ibaia oso degradatua dago, batez ere Urduña eta Arakaldo artean. Edozein ikuspuntutatik begiratuta ere, egoera ez da jasangarria.

Nerbioi ibaiaren egoerak ez ditu betetzen Europar Batasunetik datozen aginduak, eta, honen ondorioz, azken finean egoera lazgarri honetan inongo erantzukizunik ez duten herritarrek ordaindu beharko dituzte etorri daitezkeen isunak.

Gauza jakina da Nerbioi Goienaren saneamendua Espainiako Gobernuaren Uraren Zuzendaritza Orokorraren eskumena dela. Horren esku daude proiektuen idazketa, orubeen erosketa edo espropiazioa eta proiektuaren exekuzioa, lehen fasea deituriko kolektore sarea eta Basaurbeko (Laudio) eta Markixanako (Amurrio) araztegiak eta hauen abiatzea barne.

Espainiako Gobernuaren eta Jaurlaritzaren arteko transferentziak direla eta, Eusko Jaurlaritzari dagokio, URAren bitartez, orubeen erosketa edo espropiazioa, bai kolektoreen oinarrizko sarearentzat, bai bi hondakin-uren araztegientzat.

Uraren Zuzendaritza Orokorraren bitartez jakin dugu proiektuen lizitazio eta esleipenak ez direla izango 2017. urtea baino lehenago (kolektoreen sa-

***Relativa al desarrollo en la comarca de Aiara (incluido el río Nervión) de un plan urgente de saneamiento*** (Admisión a trámite)
(11/11.02.01.0019)

La Mesa, en su reunión del día 22 de noviembre de 2016, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la secretaría de la Comisión de Medio Ambiente y Política Territorial, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Mikel Otero Gabirondo, parlamentario del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no ley para su debate en pleno, relativa al desarrollo en la comarca de Aiara (incluido el río Nervión) de un plan urgente de saneamiento.

Justificación

Aunque parezca mentira, en 2016 el río Nervión se halla muy degradado, sobre todo entre Urduña y Arakaldo. La situación no es sostenible desde ningún punto de vista.

La situación del río Nervión no cumple las disposiciones que provienen de la Unión Europea, y, en consecuencia, será la ciudadanía, que al fin y al cabo no tiene ninguna responsabilidad en esta terrible situación, la que deberá pagar las posibles multas.

Es sabido que el saneamiento del Alto Nervión es competencia de la Dirección General del Agua del Gobierno de España. De ella dependen la redacción del proyecto, la compra o expropiación de los solares y la ejecución del proyecto, la red de colectores denominada primera fase y las depuradoras de Basaurbe (Laudio) y Markixana (Amurrio), incluida su puesta en marcha.

Como consecuencia de las transferencias entre el Gobierno de España y el Gobierno Vasco, corresponde al Gobierno Vasco, a través de URA, la compra o expropiación de los solares, tanto para la red básica de colectores como para las depuradoras de aguas residuales.

Hemos sabido a través de la Dirección General del Agua que las licitaciones y adjudicaciones de los proyectos no se realizarán antes de 2017 (la de la red

rearena eta Basaurbe eta Markixanako hondakin-uren araztegiena). Gauzak horrela, ez dagokigu baikorrak izatea. Oso zaila izango zaigu Nerbioi ibaia 2020. urtea baino lehenago saneatua izatea Europar Batasunak ezarritako epeek dioten legez.

Aiaraldean egoera ez da askoz hobea. Kasu honetan, eskumenak Erkidegoaren baitan dira, hain zuzen ere URA eta Arabako Diputazioaren menpe. Nahiz eta arro ezberdinen ingurumen egoera hain kaxkarra ez izan, egoera administratiboa oso txarra da. Artziniegatik igarotzen den Artziniega ibaiaren arazketa proiektua eskumena duten administrazioek ardura hartzearen zain dago. Hauek ingurumen zein ekonomia aldetik irtenbide onena zein den erabaki behar dute, Artziniegako hondakin-uren araztegia eraikiko den edo gertu duen Bilbao Bizkaia Partzuergoaren kolektorearekin konektatuko den erabakiz.

Izalde ibaiaren arroan, Zuhatza eta Arespalditzako auzo bati zerbitzua ematen dio Zerrabeko hondakin-uren araztegiak. Arroaren gainontzekoa depuraziorik gabe dago, eta ez dago proiekturik zonalde horretarako.

Izoria ibaian, Nerbioi Goieneko kolektore sarea Murgako industriaguneraino iristen da, eta ez da beste proiekturik aurreikusten.

Arrastariarentzako bi irtenbide daude: gertu duen Urduñako hondakin-uren araztegiarekin bat egin edo Saratxoraino kolektore berria egin. Baina ez da aurreikusten ez bat eta ez bestea.

Amurrion, Larrinbek eta Lezamak bere irtenbide propioak beharko dituzte. Gaur egun, kasurik onenean, hobi septikoez ari gara mintzatzen.

Altube ibaia Baranbiotik igarotzen denean, arazo berdina dugu, ez dago planik aurreikusirik saneamendurako.

EH Bilduren ustez, ezin dezakegu egoera hau gehiago luzatu. Hau dela eta, inplikatuak dauden administrazio guztiei, bakoitzari bere eskumen eta erantzukizunekin, modu koordinatu eta premiaz, beharrezkoak diren neurriak hartzea exijitzen diegu.

Hori dela eta, EH Bildu talde parlamentarioak ondorengo legez besteko proposamena aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatzeko:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1. Legebiltzar honek Jaurlaritzari eskatzen dio premiatu dezala Espainiako Gobernua Nerbioi Goieneko saneamendu sistemaren aurreproiektu eta proiektuen erredakzioa amaitzera, ahalik eta azkarren lizitatu eta esleitzeko.

de colectores y la de las depuradoras de aguas residuales de Basaurbe y Markixana). Ante esa situación, no podemos ser optimistas. Será muy difícil que el río Nervión esté saneado antes de 2020, tal y como señalan los plazos establecidos por la Unión Europea.

La situación no es mucho mejor en Aiaraldea. En este caso las competencias están en manos de la Comunidad Autónoma, dependen concretamente de URA y la Diputación de Araba. Aunque la situación medioambiental de las distintas cuencas no sea tan mala, la situación administrativa es muy mala. El proyecto de depuración del río Artziniega que pasa por Artziniega está a la espera de que las administraciones competentes asuman su responsabilidad. Dichas administraciones deben decidir cuál es la mejor solución tanto desde el punto de vista medioambiental como el económico, resolviendo si se construye la depuradora de aguas residuales de Artziniega o se conecta con el cercano colector del Consorcio Bilbao Bizkaia.

En la cuenca del río Izalde, la depuradora de aguas residuales de Zerrabe presta servicio a un barrio de Zuhatza y Arespalditza. El resto de la cuenca no cuenta con depuración, y no existe ningún proyecto para la zona.

En el río Izoria, la red de colectores del Alto Nervión llega hasta la zona industrial de Murga, y no se prevé ningún proyecto.

Para Arrastaria existen dos soluciones: la conexión con la cercana depuradora de aguas residuales de Urduña o la construcción de un nuevo colector hasta Saratxo. Pero no está prevista ninguna de las dos soluciones.

En Amurrio, Larrinbe y Lezama precisarán de soluciones propias. Actualmente, en el mejor de los casos, estamos hablando de fosas sépticas.

En el río Altube, a su paso por Baranbio, tenemos el mismo problema, no hay previsto ningún plan de saneamiento.

En opinión de EH Bildu, no podemos prolongar más esta situación. Por ello, exigimos a todas las administraciones implicadas, dentro de las competencias y responsabilidades de cada una, que tomen las medidas necesarias de manera urgente y coordinada.

Por ello, el grupo parlamentario EH Bildu presenta para su debate en pleno la siguiente proposición no de ley:

PROPOSICIÓN NO DE LEY

1. Este Parlamento insta al Gobierno Vasco a que apremie al Gobierno de España a finalizar la redacción de los anteproyectos y proyectos del sistema de saneamiento del Alto Nervión, a fin de proceder cuanto antes a su licitación y adjudicación.

2. Legebiltzar honek Jaurlaritzari eskatzen dio URAren bitartez Basaurbe eta Markixanako hondakin-uren araztegiak eta kolektore sarea egiteko beharrezkoak diren orubeak erosi edo espropiatzeko beharrezkoa den dirua 2017ko aurrekontuetatik bideratu dezala.

3. Legebiltzar honek URA eta Arabako Foru Aldundia beharrezkoa den lankidetza-hitzarmena sinatzera premiatzen ditu, Arabako Foru Aldundia izan dadin, eskumena duen URAren eskuordez, behar diren espropiazioak egiten dituena.

4. Legebiltzar honek Arabako Foru Aldundia premiatzen du, Markixanako hondakin-uren araztegia eraikiko den orubeen zati baten jabe den neurrian, hasi dadila bat-batean jabe mugakideekin beharrezkoak diren trukaketak egiten, orube guztiak Aldundiaren esku egon daitezen.

5. Kantauriko Urkidetzak esan bezala, Legebiltzar honek inplikatuak dauden administrazio guztiak elkarlanean hasi daitezen premiatzen du.

6. Legebiltzar honek URA eta Arabako Foru Aldundia premiatzen ditu, bakoitza bere eskumenen arabera, Aiaralde osorako saneamendu plan integral bat planifikatu eta burutzera. Plan honek arro guztiak bere onera ekartzeko neurriak izango ditu.

Gasteizen, 2016ko azaroaren 15ean

**Mikel Otero Gabirondo, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

***

2. Este Parlamento insta al Gobierno Vasco a habilitar desde los presupuestos de 2017 las partidas necesarias para la compra o expropiación de los solares necesarios para la construcción de las depuradoras de aguas residuales y la red de colectores de Basaurbe y Markixana a través de URA.

3. Este Parlamento apremia a URA y a la Diputación Foral de Araba a firmar el convenio de colaboración necesario a fin de que sea la Diputación Foral de Araba, por delegación de URA, la que realice las debidas expropiaciones.

4. Este Parlamento apremia a la Diputación Foral de Araba, en cuanto que es propietaria de una parte de los solares en los que se construirá la depuradora de aguas residuales de Markixana, a mantener sin demora los contactos necesarios con el resto de los copropietarios, a fin de que todos los solares pasen a estar en manos de la Diputación.

5. Este Parlamento apremia a todas las administraciones implicadas a que empiecen a trabajar en colaboración, tal y como indica el consorcio Kantauriko Urkidetza.

6. Este Parlamento apremia a URA y a la Diputación Foral de Araba a que planifiquen y lleven a cabo, cada una en el marco de sus competencias, un plan integral de saneamiento para todo Aiaraldea. Dicho plan contará con medidas para la recuperación de todas las cuencas.

Vitoria, 15 de noviembre de 2016

**Mikel Otero Gabirondo, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

***

***ibaia barne) premiazko saneamendu plan bat garatzeari buruz*** (Zuzenketak)
(11/11.02.01.0019)

Mahaiak, 2016ko abenduaren 12ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordeari bidal dakizkiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**ELKARREKIN PODEMOS TALDE PARLAMENTARIOA**

**ALDATZEKO ZUZENKETA**

"6. Legebiltzar honek URA eta Arabako Foru Aldundia premiatzen ditu, bakoitzak bere eskumenen esparruan, Aiaralde osorako saneamendu plan integral bat planifikatu eta burutzera. Plan horrek neurriak jasoko ditu arroko ibilgu guztien egoera ekologikoa berreskuratzeko eta bertoko ibai-ekosistemak lehengoratzeko".

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a elaborar, en el plazo de tres meses, un informe explicativo de las causas por las que no se han ejecutado las obras previstas en los acuerdos marco sobre infraestructuras hidráulicas de los años 2004 y 2008, suscritos entre la Diputación Foral de Álava y el Gobierno Vasco.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, junto con la Diputación Foral de Álava, programe un calendario de ejecución de las obras previstas en los acuerdos marco citados, priorizando las situaciones críticas de determinadas zonas, y efectúe una planificación económica y determine los plazos de ejecución de las obras pendientes.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que presente, en el plazo de cuatro meses, un informe sobre grado de ejecución de obras de infraestructuras y actuaciones contenidas en los planes hidrológicos, así como calendario de actuaciones previstas para el año 2021".

**EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK**

**OSOKO ZUZENKETA**

"1. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari

***Relativa al desarrollo en la comarca de Aiara (incluido el río Nervión) de un plan urgente de saneamiento*** (Enmiendas)
(11/11.02.01.0019)

La Mesa, en su reunión del día 12 de diciembre de 2016, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión a la Comisión Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPO PARLAMENTARIO ELKARREKIN PODEMOS**

**ENMIENDA DE MODIFICACIÓN**

"6. Este Parlamento apremia a URA y a la Diputación Foral de Araba a que planifiquen y lleven a cabo, cada una en el marco de sus competencias, un plan integral de saneamiento para todo Aiaraldea, que incluya medidas para la recuperación del estado ecológico de todos los cauces de la cuenca y la restauración de los ecosistemas fluviales autóctonos".

**EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio argibide-txosten bat egin dezala, hiru hilabeteko epean, azaltzeko zergatik ez diren gauzatu Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak 2004an eta 2008an azpiegitura hidraulikoei buruz sinatutako esparru-akordioetan aurreikusitako obrak.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio programatu dezala, Arabako Foru Aldundiarekin batera, aipaturiko esparru-akordioetan aurreikusitako obrak gauzatzeko egutegi bat, gune zehatz batzuetako egoera larriak lehenetsita, eta egin ditzala gauzatzeke dauden obren plangintza ekonomikoa eta exekuzio-epeen zehaztapena.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, lau hilabeteko epean, txosten bat aurkez dezala plan hidrologikoetan jasotako azpiegitura-obren eta jarduketen betetze mailari buruz, bai eta 2021erako aurreikusitako jarduketen egutegia ere".

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno de Espa-

eskatzen dio ahal bezain laster amai dezala Nerbioigoieneko saneamendu-sistemaren proiektuaren eta aurreproiektuen erredakzioa, lizitazioa eta esleipena egin ditzala eta dagozkion beharrezko ekintzak martxan jar ditzala saneamendu-sistemaren eremuan onartuta dauden beharrak betetzeko.

2. Eusko Legebiltzarrak tartean diren erakunde guztiei eskatzen die (Arabako Foru Aldundia, URA Agentzia, Kantauriko Urkidetza urpartzuergoa eta gainerako administrazio eskudunak) lanean jarrai dezatela batera eta era koordinatuan, Nerbioigoieneko saneamenduaren arazoa konpontzeko eta EAEko plangintza hidrauliko osoaren ondoriozko helburuak eta neurriak lortzeko Aiaraldeari dagokionez.

3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala politika bat uraren kalitatea bermatuko duena eta eralgiketaren, espekulazioaren eta kutsaduraren aurka borrokatuko dena.

4. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara dezala uraren hornikuntza, saneamendu eta arazketarako azpiegitura hidraulikoen exekuzioa, dagoen plangintzaren arabera".

***

ña a finalizar la redacción del proyecto y anteproyectos del sistema de saneamiento del Alto Nervión a la mayor brevedad posible, procediendo a su licitación y adjudicación, y a poner en marcha las acciones necesarias para cumplir con las necesidades reconocidas en el ámbito del sistema de saneamiento.

2. El Parlamento Vasco insta al resto de las instituciones implicadas, en el marco de sus competencias (Diputación Foral de Álava, URA Agentzia, consorcio de aguas Kantauriko Urkidetza y el resto de las administraciones competentes), a seguir trabajando de forma conjunta y coordinada para lograr la resolución del saneamiento pendiente y para alcanzar los objetivos y medidas que del conjunto de la planificación hidráulica de la CAPV resulten para Aiaraldea.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a impulsar una política de aguas que garantice su calidad y combata el despilfarro, la especulación y la contaminación.

4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a desarrollar la ejecución de las infraestructuras hidráulicas de abastecimiento, saneamiento y depuración del agua, de conformidad con la planificación existente".

***

***Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala onartzeari buruz*** (Izapidetzeko onartzea) (11/11.02.01.0020)

Mahaiak, 2016ko azaroaren 22ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordeko idazkaritzari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Otero Gabirondo EH Bildu taldeko legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, ondorengo legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren onartzeari buruz.

Zioa

2016ko abuztuaren 12an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 121/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Donostiako Eremu Funtzionalaren (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.

1997. urtetik indarrean dauden gidalerroen berrazterketa abiatu da Euskal Autonomia Erkidegoan. 2015eko uztailaren 27an, Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) berrikusteko prozedura hasteko erabakia hartu zuen eta, orobat, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren esku uztea berrikusketa hori zuzendu eta prestatzeko lana. Berrazterketa honen ondorioz, gidalerro berri batzuk finkatuko dira, gure lurraldearekin izango dugun hartu-emana definituz.

Prozesu hau amaitu gabe dagoenez eta lurraldearen antolamenduaren hierarkiak lurralde-plan partzialak eta lurraldearen arloko planak gidalerroen azpian daudela adierazten duenez, ez dirudi aproposa berrikuste-prozedura irekia dagoen bitartean lurralde-plan partzial edo lurraldearen arloko plan berririk onartzea, hauen irizpideak gidalerro berrietan finkatu beharko bailirateke.

Hori dela eta, EH Bildu legebiltzar-taldeak ondorengo legez besteko proposamena aurkezten du

***Relativa a la aprobación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostia/San Sebastián*** (Admisión a trámite) (11/11.02.01.0020)

La Mesa, en su reunión del día 22 de noviembre de 2016, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la secretaría de la Comisión de Medio Ambiente y Política Territorial, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Mikel Otero Gabirondo, parlamentario del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no de ley relativa a la aprobación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostia/San Sebastián, para su debate en pleno.

Justificación

El 12 de agosto de 2016 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el Decreto 121/2016, de 27 de julio, por el que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostia/San Sebastián (Donostialdea-Bajo Bidasoa).

En la Comunidad Autónoma vasca se ha puesto en marcha la revisión de las directrices que están en vigor desde 1997. El 27 de julio de 2015, el Consejo de Gobierno Vasco acordó iniciar el procedimiento de revisión de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT), así como encomendar al Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial la dirección y preparación de dicha revisión. Como consecuencia de dicha revisión, se fijarán unas nuevas directrices que definirán la relación que tendremos con nuestro territorio.

Dado que este proceso está sin terminar y que la jerarquía de ordenación territorial establece que los planes territoriales parciales y los planes territoriales sectoriales están por debajo de las directrices, no parece adecuado que se aprueben planes territoriales parciales o planes territoriales sectoriales mientras esté abierto el proceso de revisión, dado que los criterios de aquellos deberían fijarse en las nuevas directrices.

Por ello, el grupo parlamentario EH Bildu presenta para su debate en pleno la siguiente proposición

osoko bilkuran eztabaidatzeko:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala bertan behera uzteko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrazterketa osatu bitartean.

2. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrazterketa osoa amaitu arte ez dezala lurralde-plan partzial edo lurraldearen arloko plan berririk bultzatu edo onartu.

Gasteizen, 2016ko azaroaren 15ean

**Mikel Otero Gabirondo, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

***

no de ley:

PROPOSICIÓN NO DE LEY

1. El Parlamento insta al Gobierno a anular el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostia/San Sebastián hasta que se complete la revisión de las Directrices de Ordenación Territorial.

2. El Parlamento insta al Gobierno a no impulsar o aprobar ningún plan territorial parcial o plan territorial sectorial hasta que concluya la revisión completa de las Directrices de Ordenación Territorial.

Vitoria, 15 de noviembre de 2016

**Mikel Otero Gabirondo, parlamentario y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

***

***Relativa a la aprobación del Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Donostia/San Sebastián*** (Enmienda)
(11/11.02.01.0020)

La Mesa, en su reunión del día 12 de diciembre de 2016, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión a la Comisión Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio amai dezala lurralde plan partzialak eguneratzeko prozesua. Helburua da degradatutako inguruak birsortzea ahalbidetzea, eta ekosistemen galera mugatzea. Horretarako, erabilera-konbinazioa eta lurra berrerabiltzea sustatuko duen lurralde antolamendua onartuko du".

***

***Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala onartzeari buruz*** (Zuzenketa)
(11/11.02.01.0020)

Mahaiak, 2016ko abenduaren 12ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bildu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordeari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a culminar el proceso de actualización de los planes territoriales parciales con el objetivo de favorecer la regeneración de espacios degradados y limitar la pérdida de ecosistemas mediante la aprobación de una ordenación territorial en la que se potencie la combinación de usos, así como la reutilización del suelo".

***

***Relativa a la protección acústica de tramos de Eusko Trenbide Sarea en zonas urbanas*** (Admisión a trámite)
(11/11.02.01.0086)

La Mesa, en su reunión del día 24 de enero de 2017, acuerda admitir a trámite para su debate en comisión la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y a la Comisión de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Jon Hernández Hidalgo, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos, presenta, al amparo de lo dispuesto en el artículo 173 y siguientes del vigente Reglamento del Parlamento Vasco, la presente proposición no de ley para su debate y aprobación en pleno, relativa a la protección acústica de tramos de Eusko Trenbide Sarea en zonas urbanas.

Justificación

Son numerosas las iniciativas que se han recogido en la Cámara a lo largo de los años al respecto de la emisión de ruidos por las líneas de ETS en diferentes puntos de la geografía vasca, pero es preciso aplicar todas las medidas necesarias para cumplir con los objetivos de calidad acústica que permitan a la ciudadanía vivir en sus ciudades y pueblos en condiciones óptimas para la salud.

Entre los diferentes focos emisores acústicos sometidos a las disposiciones del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cabe destacar el relativo a infraestructuras viarias e infraestructuras ferroviarias y portuarias, de competencia autonómica o foral.

De este modo, en las líneas de ETS (Eusko Trenbide Sarea) han de regir las disposiciones de tal decreto.

De este modo, y ante la declaración de diferentes zonas de protección acústica especial (ZPAE), las cuales se corresponden con área o áreas acústicas en las que se incumplen los objetivos de calidad acústica aplicables y sean así declaradas por la Administración, y para las cuales se define el correspondiente plan zonal, es preciso que se apliquen una serie de medi-

***Eusko Trenbide Sarearen hiriguneetako tarteetan babes akustikoak jartzeari buruz*** (Izapidetzeko onartzea)
(11/11.02.01.0086)

Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 24ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, batzordean eztabaidatzeko, Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordeari bidal dakiela eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Jon Hernández Hidalgo Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkideak, Eusko Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 173. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, legez besteko proposamen hau aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatu eta onesteko, Eusko Trenbide Sarearen hiriguneetako tarteetan babes akustikoak jartzeari buruz.

Arrazoiak

Hainbat dira euskal geografiako zenbait tokitan ETSren lineek eragindako zaraten inguruan Ganbera honetan urteetan zehar jaso diren ekimenak, baina nahitaezkoa da behar diren neurri guztiak aplikatzea kalitate akustikoaren helburuak betetzeko, herritarrak beren hiri eta herrietan bizi ahal daitezen osasun-baldintza hoberenekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko xedapenen mende dauden foku igorle akustikoen artean, azpimarratzekoa da bide-azpiegiturei eta trenbide- eta portu-azpiegiturei dagokiena, autonomia- edo foru-eskumenekoa dena.

Hori horrela, Eusko Trenbide Sarearen (ETS) lineetan aipatu dekretuaren xedapenak bete behar dira.

Era horretan, eta zenbait toki babes akustiko bereziaren eremutzat (BABE) jotzen direnez, zeinak baitira kalitate akustikoko helburu aplikagarriak betetzen ez diren eta Administrazioak halakotzat jo dituen eta dagokien eremuko plana zehaztuko zaien area akustikoak, nahitaezkoa da neurri zuzentzaile batzuk aplikatzea.

das correctoras.

Por todo ello se formula la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno.

El Parlamento Vasco insta al Gobierno a instalar pantallas acústicas en zonas urbanas por las que transiten las líneas de ETS al objeto de minimizar el ruido que provoca tal infraestructura.

Vitoria-Gasteiz, 17 de enero de 2017

**Jon Hernández Hidalgo, parlamentario del grupo Elkarrekin Podemos. Lander Martínez Hierro, portavoz**

***

Horregatik, ondoko legez besteko proposamena aurkezten dugu osoko bilkuran eztabaidatzeko:

Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio pantaila akustikoak ipini ditzala ETSren lineek igarotzen dituzten hiriguneetan, azpiegitura horrek eragiten duen zarata minimizatze aldera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 17a

**Jon Hernández Hidalgo, Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkidea. Lander Martínez Hierro, bozeramailea**

***

***Eusko Trenbide Sarearen hiriguneetako tarteetan babes akustikoak jartzeari buruz*** (Zuzenketa)
(11/11.02.01.0086)

Mahaiak, 2017ko otsailaren 14ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea Elkarrekin Podemos talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Batzordeari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak bere babesa adierazten dio 'Trenbide-lineek sortutako zarataren kontrako ekintza-plana'ri, 2016ko ekainean onartutakoari, Zaratari buruzko 37/2003 Legearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuarekin bat etorriz, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio inbertsioak egiten jarrai dezala bere titulartasuneko trenbide-lineen etengabeko hobekuntzarako. Horrela, garraio publikoko zerbitzu segurua, kalitatezkoa eta efizientea ematen lagunduko du".

***

***Relativa a la protección acústica de tramos de Eusko Trenbide Sarea en zonas urbanas*** (Enmienda)
(11/11.02.01.0086)

La Mesa, en su reunión del día 14 de febrero de 2017, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, y ordena su remisión a la Comisión de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco muestra su apoyo al 'Plan de acción contra el ruido generado por las líneas ferroviarias' aprobado en junio de 2016, de acuerdo con la Ley 37/2003, del Ruido, y el Decreto 213/2012, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma de Euskadi, e insta al Gobierno Vasco a que siga llevando a cabo inversiones para la mejora continua de las líneas ferroviarias de su titularidad, contribuyendo así a la prestación de un servicio público de transporte seguro, de calidad y eficiente".

***

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Grupo Popular Vasco

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
SARRERA - ENTRADA
2016 ABE. DIC. 29
Nº 1224 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

## A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

M.ª Carmen López de Ocáriz, Parlamentaria del Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra, al amparo del vigente Reglamento presenta la siguiente **SOLICITUD DE COMPARECENCIA** de D. ERNESTO MARTINEZ DE CADREDO ARRIETA, Director General de la Agencia Vasca del Agua, en la **COMISION DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA** al objeto de que explique la conciliación y los posibles conflictos de interés entre su actividad laboral y su designación como Director General de la Agencia Vasca del Agua desde el punto de vista de la ética, buen gobierno y conducta.

**JUSTIFICACIÓN**

D.ERNESTO MARTINEZ DE CADREDO ARRIETA ha desarrollado y desarrolla una prolija actividad laboral en múltiples empresas que pueden tener una directa incidencia en las actuaciones que comprende su nuevo cargo como Director general de la Agencia Vasca del Agua y, en especial, con lo dispuesto en La LEY 1/2014 de 26 de junio, Reguladora del Código de Conducta y de los Conflictos de Intereses de los Cargos Públicos y el Código de Conducta del Gobierno Vasco. Es por ello, en el ejercicio de la función representativa, por lo que solicitamos se explique en esta Cámara la conciliación y los posibles conflictos de interés, éticos y de conducta entre su actividad laboral y su designación como Director General de la Agencia Vasca del Agua.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de diciembre de 2016

Vº Bº PORTAVOZ

Mª del Carmen López de Ocáriz López de Munain
Parlamentaria del Grupo Popular Vasco